



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2024ko UZTAILAREN 23an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2024ko uztailaren 23an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Vicente Garcia Momblona
Jose Agustin Arrieta Eguiguren

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ander Iturri Torrea eta Maria Isabel Vaquero Montero.


Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2024ko ekainaren 27an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 27 de junio de 2024.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Larraulgo udalerriko herri bideen garbiketarako lanen esleipena/ Adjudicación de los trabajos de desbroce de caminos públicos de Larraul.**
- 5. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2024 ko 3. eta 4. hiru hilabeteko ekarpenak burutzea/ Ejecución de las aportaciones a la Mancomunidad de Servicios de Aiztondo: 3º y 4º trimestre de 2024.**
- 6. Eudelek igorritako zirkularra onartzea, 2024ko ordainsari-igoerari buruzkoa 2024.01.01 ko ondorioekin/ Aprobación de la circular enviada por EUDEL sobre el incremento retributivo del 2024, con efectos del 01.01.2024.**
- 7. Beste batzuk/Otros.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

..//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2024 urteko ekainaren 27an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 36/2024tik 40/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

SECURITAS DIRECT	54,39
SECURITAS DIRECT	55,04
GRENKE	214,17
IPARFIBRA	263,41
EKILUZ	40,07
EKILUZ	55,81
EKILUZ	143,12
EKILUZ	124,07
EKILUZ	26,32
TELEFONICA	83,49
OSCAR GALINDO	133,10
TEK	110,11
ZU ETA BOK	1.528,48
EBA ERKIZIA	1.373,59
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.357,50
AIZKIBEL	66,55
GILBE	197,89
SARASOLA	139,82
ALKAIN	407,82
LOPETEGI	157,76
IÑAKI ESNAL	375
DA CAPO	242,00
ULAH	468,12
MAITE ARANA	47,80



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

OSTARBI	18.143,27
OSTARBI	493,52
MAITE ARANA	45,07
SERVIGRAF	30,25
MIRARI ERRONDOSORO	5.914,48

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **32.292,02** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO HERRI BIDEEN GARBIKETARAKO LANEN ESLEIPENA

Larraulgo Udalak, beharrezkoa du, Baserri bideen eta hainbat herri biden desbrozaketa egitea, horretarako IRATZE Lorezaintza, S.L.U. enpresari aurrekontu bat eskatu dio.


Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, udalbatzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ goitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: IRATZE LOREZAINZA, S.L.U. enpresari, Larraulgo baserri bideen eta hainbat herri biden desbrozaketa lanak egiteko kontratua esleitzea, 4.028,82 euro (BEZ kanpo), 1.0000. 210.163.00.01 "Luiziak, Bide eta kale garbiketa" kontu sailaren kontura.

BIGARRENA: : Erabaki honen berri IRATZE enpresari ematea.

BOSTGARRENGO PUNTUA


AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2024KO 3. ETA 4. HRIU HILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA

Ikusirik 2024ko uztailaren 2an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2024 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 16.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 13.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2024 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 16.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2024 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2024 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

-Gizarte zerbitzuak: 13.500,00 euro

-Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 16.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

EUDELEK IGORRITAKO ZIRKULARRA ONARTZEA, 2024KO ORAINSARI-IGOERARI BURUZKOA 2024.01.01

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengo dioen:

“2024ko ORDAINSARI-IGOEREI BURUZKO INFORMAZIO-ZIRKULARRA


2024.06.25ean, ministroen kontseiluaren erabakiz, ***ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua*** onartu zen, ***Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga, energia eta gizarte arloetan premiazko neurriak hartzen dituen***. (2024ko ekainaren 27ko BOE)

Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokionez, aipatutako [Errege Lege Dekretuak, 6. artikuluan](#) (esteka), hau arautzen du:

“Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-neurriak

6. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera 2024. urterako.

1.2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ehuneko 2ko gehieneko igoera globala izan ahal izango dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, azken horietan barne hartuta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2.Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko da, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gaintitzen badu. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuaren datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...)"

Aurrekoa ikusita, eta EUDELEk aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokionez egin izan duen bezala, ordainsarien arloan egon daitezkeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

PROPOSAMENA

Baimendutako legezko maximoaren % 2ko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, ***2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneousotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.***

6.2 artikuluan araututako % 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta finkagarriari dagokionez, 2024ko KPI harmonizatuaren datuak Estatistikako Institutu Nazionalean (INE) argitaratu arte zain egon beharko da, eta geroago onartuko da igoera horren aplikazioa, Ministroen Kontseiluaren Akordioaren bidez. Akordio hori BOEn argitaratuko da, eta EUDELEk unean-unean emango dizue horren berri."

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2024 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Hau da:

Baimendutako legezko maximoaren % 2ko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, ***2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako***



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**


Ez dira aurkezten.

ZORTZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Segidan, batzarkideek adosten dute ondorengoaren Kostantzia gelditzeko nahia:

Azken egunetan prentsan atera den albistea dela eta, hau da, Larraulen lurperatuta omen dago gerra zibilean fusilatua izan zen lehenengo gudaria, Jose Joaquín Egaña jauna, jaiotzaz Azkoitiarra. Korporazio hau informatua izan da Aranzadi bitartez eraman behar den protokoloaz. Ondorengo udalbatzetan, ematen diren pausoen berri emango da.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 12:30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

